

GINARRIZKO BIZI-EUSKARRIRAKO GOMENDIOAK

COVID-19 BIRUSAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUAREN AURREAN



BIHOTZ-BIRIKETAKO GELDIALDIAN (BBG) DAUDEN BIKTIMEI LAGUNTZEA, COVID-19 BIRUSAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOEN KASUETAN.

SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen pandemiaren testuinguruan, kasu posibletzat hartzen da arnas infekzio akutu arinaren zantzuak dituen pertsona, diagnostiko mikrobiologikoko probarik egin **EZ** badiote ere.



Ospitalez kanpoko esparruan, gomendioen arabera eta zuhurtziaz jokatu behar dela kontuan hartuta, BBG egoeran dagoen edozein biktima COVID-19 birusarekin kutsatuta egon daitekeen pertsonatzat hartu behar dugu, eta, beraz, gaixotasuna kutsa diezaioke suspertzen ari denari.

Horregatik, zentzuzkoa da BBG egoeretako arreta eta Oinarrizko Bizi Euskarria ematekoa egoera berri horretara egokitzea, bai laguna suspertzeko ahaleginean ari denaren segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko, bai birusarekin kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.



BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA URRATSEZ URRATS

- BBB maniobrak egiten hasi aurretik, egiaztatu leku segurua dela.
- Jantzi **maskara**, halakorik baduzu.
- Infekzio-arriskua hautematen baduzu, jantzi **maskara** biktimari.
- **Aztertu** biktima, bizi-zantzurik baduen eta arnasa normal hartzen duen ikusteko.
- Ez ireki arnasbidea kopeta-kokots deritzon

maniobraren bidez, eta ez erabili ikusi-entzun-sentitu abordatze-teknika.

- Konortetik gabe badago eta ez badu arnasa normal hartzen, onartu BBG egoeran dagoela.
- Konortetik gabe badago baina arnasa normal hartzen badu, ezarri alboka, segurtasun-jarreran.
- Eman egoeraren berri, eta **eskatu laguntza** larrialdiko zerbitzuei **112** telefonora deituz.
- BBG egoera den zalantzak badituzu, has zaitez BBB maniobrak egiten, baina **konpresio torazikoak eginez soilik**, eskatutako laguntza iritsi arte: sakontasuna: 5-6 cm; maiztasuna: 100-120/min.

EZ EGIN AHOZ AHOKO ARNASKETARIK KONPRESIOEKIN!

- Eskatu kanpoko desfibriladore automatikoa (KDA). KDA iristen den unean, piztu, ezarri elektrodoak eta jarraitu jarraibideei.
- BBB baten ondoren, garbitu oso ondo eskuak ura eta xaboiarekin edota disoluzio hidroalkoholikoarekin. BBBan, erabilitako arropa garbitzea gomendatzen da.

¿EZ DU ERANTZUTEN?



OIHU EGIN LAGUNTZA ESKE

EZ MANIPULATU
BIKTIMAREN ARNASBIDEA



ESTALI SUDURRA ETA BIKTIMAREN AHOA.
NORMALTASUNEZ HARTZEN AL DU
ARNASA??

EZ

BAI

SEGURTASUNEKO ALBOKO POSIZIOA



DEITU 112
ZENBAKIRA



Hasi BBB. Bakarrik
Konpresio torazikoak
100 - 120/min.



KANPO-DESFIBRILAZIO
AUTOMATIKOA (KDA)



ANÁLISIS RITMO

ADIERAZITAK
O DESKARGA

ADIERAZI
GABEKO
DESKARGA

DESKARGA 1

HASI BEREHALA
BBB KONPRESIOAK
BAKARRIK
2 MINUTUZ

HASI BEREHALA
BBB KONPRESIOAK
BAKARRIK
2 MINUTUZ

JARRAITU BIKTIMAK
HASI ESNATZEN, MUGITZEN, IREKITZEN
BEGIAK ETA ARNASA NORMAL HARTU